

2023/10/24 – 08:30

AZTERKETAREN KODEA: COE12

Especialidad: ATERPETXEKO JAGOLEA

Gehienezko denbora: 45 minutu

Galderak: 30.

MODELO / EREDUA:	D
------------------	----------

JARRAIBIDEAK:

- Ez ireki koadernotxo hau esan arte. Orain, jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi: NANA eta LETRA, eta bete laukitxoak irakurketa optikorako.
- Idatzi: 1. abizena, 2. abizena, IZENA eta DATA.
- "AZTERKETA" atalean, idatzi goiko aldean agertzen den azterketa-kodea. Egin ezean proba baliogabetua izango da.
- Adierazi zure erantzun-orrian egokitu zaizun azterketa-eredua.
- Gogoratu:
 - 30 galdera, 4 erantzun-aukera dituztenak.
 - Baliozko aukera bakarra. Bat baino gehiago badago, orokorra edo osatuen, enuntziatua "Hautatu enuntziatu FALTSUA" eskatzen da; kasu horretan, hiru egiazkoak izango dira eta ez dena markatu behar da, faltsua.
 - Zuzeneko puntuazioak: Asmatzea, 1,00 puntu, errorea, -0,33 puntu. Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak EZ dute penalizatzen.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ekitaldiko azken 5 minutuetan.
- Azterketa jasotzeko eskatu ahal izango da lehenengo 15 minutuak igarotakoan eta asistentzia identifikatzeko lanak amaitu ondoren.
- Eskatzen zaizunean, bereizi orri zuria eta erantzun-orriaren kopia horia. Zuria erakundeko langileei ematen zaie.
- Kopia horia eta jarraibide-orria bere esku geratuko dira.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

1. Laneko arriskuak prebenitzeari dagokionez, zer informazio eman behar die enplegataileak langileei?

- a) Lantokian dauden arriskuen identifikazioa.
- b) Aplikatu beharreko prebentzio- eta babes-neurriak.
- c) Larrialdietan jarduteko modua.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

2. Zer da bitarteko funtzionarioa?

- a) Funtzionario-izaera izanik, plaza huts bat behin-behinean betetzen duena, plaza hori behin betiko bete arte.
- b) Aldi baterako langile lan-kontratuduna.
- c) Funtzionario-izaera izanik, behin-behineko izaerarik gabeko plaza huts bat betetzen duena.
- d) Funtzionario-izaerarik ez duena.

3. Hautaketa-organoen osaerari dagokionez, adierazi enuntziatu okerra:

- a) Hautaketa-organismoak kide anitzekoak izango dira, eta haien osaerak kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko ditu.
- b) Hautaketa edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak eta behin-behineko langileak ezin izango dira hautaketa-organismoetako kide izan.
- c) Hautaketa-organismoetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezin izango da inoren ordezkari edo kontura izan.
- d) Gutxienez kide bat Langileen Batzordeak izendatutako pertsona batentzat gorde behar da.

4. Enplegatu publikoen betebeharrak: Adieraz ezazu EPOETBren 52. artikuluan jasotzen den betebeharra.

- a) Interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezen zaintzea.
- b) Pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik ez onartzea, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- c) Kultura-ingurunea eta ingurumena sustatzea.
- d) Arretaz betetzea esleituta dituzten zereginak.

5. Zein da Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren helburu nagusia?

- a) Emakumeen diskriminazio positiboa sustatzea.
- b) Neurri-multzo integratu eta sistematikoko bat zehazteko plan gidaria izatea, Gasteizko herritarrek berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan baliatu ahal izan dezaten hirirako duten eskubidea.
- c) Udal-ekintza publikoa orientatzea, bultzatzen diren politikak berdintasunean eragin positiboa izan dezaten.
- d) Berdintasun-politiken subjektu politikoa arau heteronormatiboak zapalduz beste pertsona batzuetara zabaltzea.

6. Nor da Gasteizko Udaleko Osoko Bilkurako lehendakaria?

- a) Alkatea.
- b) Zinegotzirik gazteena.
- c) Boto gehien jaso dituen zinegotzia.
- d) Zinegotzirik beterranoena.

7. Instalazioak zaintzeko zereginak:

- a) Goizeko eta gaueko txandetan egin ahal izango dira.
- b) Komenigarritzat jotzen denean egingo dira.
- c) Gauez bakarrik egingo dira.
- d) Goiz, arratsalde eta gaueko txandetan egin ahal izango dira..

8. Noiz egon ohi da CMAS irekita, egoera berezietan izan ezik?

- a) Goiz eta arratsaldeko ordutegian.
- b) Urteko egun guztietan, igande eta jai egunetan izan ezik.
- c) Urte osoan, 24 orduz.
- d) Gaueko arreata-zerbitzua da.

9. Harrera Sozialerako Udal Zentroan bizi diren pertsonak...

- a) Jan eta lo besterik ez dute egiten zentroan.
- b) Goizeko 10etan irten behar dute nahitaez, eguneko zentrorra joateko.
- c) Arropa zentrotik kanpo garbitu beharko dute.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da egia.

10. CMASera sartzeko...

- a) Adinak ez du axola.
- b) Adinak ez du axola, gurasoek lagunduta joanez gero.
- c) Adinez nagusia izan behar da.
- d) Ez da 65 urtetik gorako pertsonarik onartzen.

11. CMASeko egoiliar batek goizaldeko laurak aldera esnatzeko eskatzen badu, lanera joan behar duelako, zein litzateke erantzunik egokiena?

- a) Mugikorraren iratzargailua jartzeko esatea.
- b) Sentitzen dudala erantzuten diot, hori ez dela gure zereginetako bat.
- c) CMASen bizi diren pertsonak ez dute lanik.
- d) Ez kezkatzeko esaten diot, joango direla esnatzera.

12. Adierazi eragiketa hauetako zein ez den egokia hustubidea libratzeko:

- a) Hustubidearen ahoa aztertzea, buxatzen duten objektuen bila.
- b) Hustubidean harea sartzea, hura oztopatzen duen objektua arrasta dezan.
- c) Presiopeko ura botatzea.
- d) Bentosa-libragailu bat erabiltzea.

13. CMASeko egoiliarren betebeharrak bat da:

- a) Gainerako egoiliarrek eta langileak errespetuz tratatzea eta haiekin harreman ona izatea.
- b) Instalazioak behar bezala erabiltzea.
- c) Zentroan ez erretzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

14. CMASeko geletan barrena ibiltzeko, jagoleak hau egin beharko du...

- a) Arduradunari jakinarazi bere postutik aterako dela.
- b) Telefono mugikor pertsonala eraman, behar badu ere.
- c) Solairuetan horretarako jarritako interfonoak erabili.
- d) Haririk gabeko telefono korporatiboa eraman, erabili behar badu ere.

15. Harrera Sozialerako Udal Zentroan ez ezik, zer beste lekutan egin dezakete lan jagoleak?

- a) ATERPE gaueko arreta-zerbitzuan.
- b) ESTRADA eguneko zentroan.
- c) Figura profesional hori CMASi lotuta dago.
- d) Gizarteratu ikastaroen programazioan.

16. Gizarte Inklusioaren Zerbitzuan bada harrera baliabideen unitate espezifiko bat. CMAS gain, zer beste ostatu kudeatzen ditu?

- a) Tutoretzapeko etxebizitzak, gaueko arreta zerbitzua (Aterpe) eta eguneko zentroa (Estrada).
- b) Etxe Irekia eta Arriaga etxea.
- c) Larraldietarako harrera-etxebizitzak.
- d) A eta C erantzunak zuzenak dira.

17. Jagole-taldearen zereginetako bat instalazioak berrikustea da. Noiz egiten da?

- a) Hilero.
- b) Egunero.
- c) Astero.
- d) Hiru hilean behin.

18. Jendeari arreta ematen diogunean, informatzaileak hau egin behar du:

- a) Kontaktuan aurrea hartu.
- b) Mezua goizegi interpretatu.
- c) Pertsonalki inplikatu.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

19. Etxerik gabeko pertsonen egoerak definitzeko, zer tipologia erabiltzen da Gizarte Inklusioaren Zerbitzuan?

- a) FEANSA.
- b) ETHOS.
- c) MIKASA.
- d) HOUSING

20. CMASeko autobabeserako eskuliburuko larraldietarako organigraman, honela agertzen da jagole-taldea:

- a) Esku hartzeko eta larraldietako buruak dira.
- b) Bigarrenez esku-hartzeko taldea da.
- c) Lehen esku-hartzeko talde propioa da.
- d) Ez da agertzen larraldietarako organigraman.

21. Arrisku handiko lokaletan inor ez dagoenean bero-fokuen erabilera desegokia dela eta (su txikiak, berogailuak, metxeroak, etab.),

- a) Zentroko segurtasun-neurriei bakarrik eragiten die, eta bertan norbait badago.
- b) Ez da izaten suteen eragile nagusietako bat.
- c) Ez die eragiten zentroko segurtasun-neurriei.
- d) Sute-eragile nagusietako bat da.

22. CMASeko gelak solairu hauetan banatzen dira:

- a) Lehena eta bigarrena.
- b) Behekoa eta lehenengoa.
- c) Bigarrena eta hirugarrena.
- d) Behekoa, lehena eta bigarrena.

23. CMASen ostatatutako pertsona bat 22:00etan iristen bada, intoxikazio etilikoa duela, ordutegi-txanda horretako jagle-bikoteak...

- a) Zentroko araudia gogoraraziko dio, modu atsegina eta hurbilean.
- b) Ez dio sartzen utziko, eta gaua beste leku batean igarotzeko iradokiko dio.
- c) Bere logelara sartzen utziko dio, eta gelara lagunduko, intoxikazio-mailak hala eskatzen badu.
- d) Gaueko harrera zerbitzuko segurtasun-langileei deituko die, zentrora joan daitezela.

24. Erdi Aroko hirigunetik paseatzen ari zarela norbaitek galdetzen badizu zein den Harrera Sozialerako Udal Zentroaren helbidea, Hemen dagoela adieraziko diozu:

- a) Kantabrikoaren hiribideko 10.ean.
- b) Goiuriko plazako 3.ean.
- c) San Antonio kaleko 10.ean.
- d) Mediterraneoaren hiribideko 12.ean.

25. Nolako ostatu-baliabidea da Harrera Sozialerako Udal Zentroa?

- a) Aldi baterakoa, egonaldiak gehienez ere lau hilabete iraun baitezake.
- b) Intentsitate txikikoa, eskusio-egoeran dauden pertsonen laguntzeko.
- c) Aldi baterakoa, eta gaua igarotzeko, garbitzeko eta gosaltzeko oinarritzko premiei erantzuten die.
- d) Aurreko definizioetako bat ere ez dator guztiz bat aipatutako ostatu motarekin.

26. Bada bazterkeria-egoerak objektibatzeko dekretu bat (385/2013 Dekretua), zeinak balioesteko tresna onartzen baitu. Balioespen hori bigarren mailako arretako bulegoetan egiten da (foru aldundiarenak).

- a) Ez da hala, bazterkeria-egoerak “etxegabetasun-egoeran” dauden pertsonekin lan egiten duten taldeek definitzen dituzte.
- b) Egia da, eta gaueko arreta zerbitzuan (ATERPE) eta CMASen sartzeko eskatzen den betekizuna da egindako balioespena aurkeztea.
- c) Egia da.
- d) Ez da egia.

27. CMASera eta Gaueko Harrera Zerbitzura sartzen diren pertsona guztiek sarbidea eskatu dute, eta Gizarte Politiken Saileko zinegotziaren aldeko ebazpena dute.

- a) Ostatu horietara sartzeko nahikoa da edozein entitate edo erakundetako gizartelangileei esatea.
- b) Ostatu horietara sartzeko nahikoa da atean agertzea eta sartu nahi dela esatea.
- c) Poliziak lekualdatzen dituen pertsonak baino ez dira sartzen; beraz, ez zaie iritzirik eskatzen.
- d) Egia da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan eskubide subjektibo bat erabiltzen ari direlako bermea delako.

28. CMASeko jagote-taldearen eginkizunen artean ez dago:

- a) Ikuztegiaren antolaketa.
- b) Jendaurreko arreta.
- c) Telefonogunean telefonoz erantzutea.
- d) Segurtasun-kamerak ikuskatzea.

29. Nolako ostatua da CMAS?

- a) Sozio-sanitarioa.
- b) Psiko-sanitarioa.
- c) Psiko-soziala.
- d) Soziala, arreta psiko-sozio-educatiboarekin.

30. Adingabe batek Harrera Sozialerako Udal Zentroan sartu nahi badu, zer egin behar du jagoleak?

- a) Adingabeari elkarrizketa egin eta familiari telefonoz deitu, lasaitu daitezten.
- b) Samurtasunez galdetu zergatik eskatzen duen ostatua.
- c) Sartzen utzi eta atsedean hartu arte itxaron.
- d) Filiazio-datuak eskatu eta poliziari telefonoz deitu.